



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-DEIALDIA

Barikua, urtarrilak 11 (9:30etan). Herri Lan eta Garraioetako Batzordea

Herri Lan eta Garraioetako Batzordeagaz hasiko dira Batzar Nagusien aurtengo kontrol saioak

Bilbon, 2013ko urtarrilaren 10ean

Gabonetako etenaldituaren ostean, Bizkaiko Batzar Nagusiek barriro be ekingo deusie kontrol saioak egiteari. Biharko, barikurako, deitutako Herri Lan eta Garraioetako Batzordea hasiko da horretan aurtengo 2013. urteari jagokonez, eta Bizkaiko garraio publikoagaz lotutako zenbait gai aztertuko ditu, Bizkaibus zerbitzuari lotutakoak hain zuzen. Herri Lan eta Garraioetako foru diputatua, Itziar Garamendi andrea, batzorderatu egingo da Batzarkide-Taldeei azaltzeko zertan dan bere Sailak prestatutako Bizkaibusaren berregituratze planaren kontua. Metro Bilbaoren txartelak saltzeko makinei eta bidaia-txartelak erosterakoan kreditu txartelak erabili ahal izateari buruzkoak be eztabaidatuko dira batzar horretan.

Hasierako aztergaitzat Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako ahozko erantzun-eske bat dago, Batzarkide-Taldeek Bizkaibusaren berregituratze planari egindako alegazinoak zertan dagozan ezagutzeko. Horren inguruan aurkeztutako idatzian, Alderdi Popularreko Jesús Isasi batzarkideak galdetzen dau “ea Herri Lan eta Garraioetako Sailak asmotan ete darabilen zona barriak martxan jartea 2013. urterako, urte horretan amaitzen dira-ta aurreko kontzesinoak”, edo “ea noiz edo zein epetan darabilen asmotan Taldeen alegazinoei erantzutea”.

Beste alde batetik, Bildu Taldeak diputatuaren batzorderatzea eskatuta dauka, azaldu dagian Deloitte Advisory, SL enpreseari egindako esleipena, Aldundiaren errepide bidezko erabilera orokorreko bidaiarien garraio publiko irregular eta iraunkorreko zerbitzuen administrazio-emakidaren eredu juridikoa definitzeko laguntza teknikoa eta zerbitzuok kontratatzeko pleguak idaztekoa hain zuzen.

Bildu Taldeak Bizkaibus zerbitzuan egiten dan euskerearen erabilereari buruz be galdetzan dau, eta ezagutu gura dau Sailak ze partida daukan aurrekontuan “Bizkaibuseko emakidadunen eremuan hizkuntza-politikak betetzeko” eta zein dan “operadoreei dagokienez —bai gidari-lanpostuetan, bai bezeroarentzako arreta zerbitzuan— plantilaren euskalduntze-mailaren inguruan Sailak egindako diagnostia”.

Horrezaz ganera, Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat be eztabaidatu eta bozkatuko dau Batzordeak, hain zuzen be bilatzen dauena Leioako unibertsitatearen campusean Bizkaibus zerbitzuaren linea ezbardinek daukiezan geralekuak areagotzea, Talde horren ustez logikoena izango litzatekealako campusean dagozan 3 geralekuetako edozein erabili ahal izatea, erabiltzaileek ez dagien campusa barriro zeharkatzen ibili behar.

Bizkaiko Talde Popularrak, bere aldetik, proposamen bat aurkeztuta dauka eskatzeko derrigorrezkoa izan daitela PIN zenbakia sartzea Metro Bilbaoko txarteldegietan kreditu- eta debito-txartelak erabilerakoan. Talde horrek Bizkaiko Garraioen Patzuergoari eta Metro Bilbao enpreseari luzatzen deutse eskaerea, derrigortasun hori ez izatea arazotsua izan leitekealako erabiltzaileentzako, adibidez aldi berean zenbait Creditrans erosten diranean edo bankuko txartela lapurtzen deusuenean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CONVOCATORIA DE PRENSA

Viernes, 11 de enero (9.30 horas). Comisión de Obras Públicas y Transporte

La Comisión de Obras Públicas y Transporte estrena este año las sesiones de control de las Juntas Generales

Bilbao, a 10 de enero de 2013

Las Juntas Generales de Bizkaia reinician sus sesiones de control tras el pequeño paréntesis navideño. La Comisión de Obras Públicas y Transporte, convocada para mañana viernes, estrenará el debate de este año 2013 con varias cuestiones relacionadas con el transporte público de Bizkaia. La sesión se centrará en conocer diferentes asuntos relacionados con el servicio Bizkaibus. La Diputada foral Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, comparecerá para informar a los grupos junteros sobre cuestiones que tienen que ver con el plan de reordenación de los autobuses forales que ultima su departamento. Las máquinas expendedoras de billetes de Metro Bilbao y su sistema de pago con tarjeta de crédito para la adquisición de títulos de transporte, se “colarán” también en el debate parlamentario.

La sesión comenzará con una pregunta oral planteada a la Diputada por el Grupo Popular Vizcaíno, que incide en el momento en el que se encuentran las alegaciones presentadas por los grupos junteros en relación al nuevo plan de reordenación de Bizkaibus. “¿Tiene pensado poner en marcha las nuevas zonas para el año 2013, año de finalización de las anteriores concesiones? ¿Cuándo o con qué plazo tiene pensado responder a las alegaciones de los Grupos?”, pregunta en su escrito el apoderado del PP Jesús Isasi.

Por su parte, el Grupo Bildu solicita también la comparecencia de la responsable foral para que explique la adjudicación realizada a la empresa Deloitte Advisory en relación con el contrato de asistencia técnica para la definición del modelo jurídico de concesión administrativa de los autobuses de titularidad foral en el que está incluido la redacción de los pliegos.

El interés de la coalición abertzale por el Bizkaibus se extiende al uso del euskera en este servicio. Bildu quiere conocer también cuáles son las partidas presupuestarias del departamento “para dar cumplimiento a las políticas lingüísticas en las concesiones de Bizkaibus” y el diagnóstico realizado sobre el nivel de euskaldunización de la plantilla de los distintos operadores, tanto en los puestos de conducción como de atención al cliente.

Por otra parte, la Comisión debatirá y votará una Proposición No de Norma planteada por Bildu que persigue “ampliar” las paradas de las líneas de autobús que dan servicio al campus universitario de Leioa, ya que éstas (existen tres puntos de estacionamiento localizados al principio, a la mitad y al final del recinto) se distribuyen de manera “desigual” entre los distintos servicios, según este grupo.

Por su parte, el Grupo Popular ha presentado otra propuesta para que las máquinas de venta de billetes de Metro Bilbao incorporen obligatoriamente el uso del PIN de la tarjeta de crédito o débito cuando se adquiera un título de transporte con esta modalidad de pago. Este grupo solicita dicho cambio al



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Consortio de Transportes y a la empresa explotadora del ferrocarril metropolitano, ya que la no exigencia de la clave puede suponer "molestias" o "problemas" para el usuario cuando, por ejemplo, se adquieren varios creditrans al mismo tiempo o cuando te roben la tarjeta.